

izan du aurten *La huella sonora* disko berriarekin. Aurrekoaren ildo beretik doa, baina aldaketa txiki batekin: hura Kubatik egin bazen, hau egiteko ez du Madrildik atera behar izan. «Disko honekin joan-etorriko zikloa egina genuela sentitu genuen. Hara joatean oso pertsona interesgarriek eta soinu aukera zabal batek liluratzeko zaituzte, baina hurbilketa dastatu ondoren baliagarriak gertatzen zaizkizun adierazpen baliabide haiek aukeratu behar dituzu, son-a izan dadin Espainiako rockero batek erabil dezakeen osagaietako bat». Horrela, rocka, *rythm' blues*-a, *soul*-a eta Kubako *guajira* topa daitezke Juan Perroren lan berrian.

Kontzertu hau Juan Perroren disko berriaren aurkezpena izango da Euskal Herrian.



MANU DIBANGO

Manzanilloko abeslaria eta kantugilea izan zen, Orquesta-ren urterik goxoenetan hain zuzen. Candido Fabre ezaguna da Kuban batekotasunerako eta erritmorako duen dohainarengatik. Haren abestiak Los Van Van, Jovenes Clasicos del Son, Albita Rodriguez, Celia Cruz, Isaac Delgado, Oscar D'Leon, Orquesta Aragon eta beste talde askok jo dituzte. Guztira hamalau pertsonak, Candido Fabre barne, osatzen dute banda, non ez diren falta biolinak, perkusio-

ak, teklatuak, flauta...

Manu Dibangok ez du aurkezpenik behar. Afrikak eman duen artistarik ezagunenetakoa da. Europarako bidea hartu zuen lehena izan zen 1947an, gerrek Afrika astintzen zutenean. Afrikako erritmoek pop musikarekin bat egin zezaketela erakutsi zuen, bidea zabalduz artista askori. Berak egin zuen, 1971n, Afrikako pop diskorik salduena, *Soul Makossa*, eta 1994an Afrikako musikari ospetsuenak —Angelique Kidjo, Salif Keita, King Sunny Ade, Youssou N'Dour, Ray Lema, Papa Wemba...— bildu zituen *Wakafrika* diskoan. Kamerunen jaiotza Parisen finkaturiko saxoi jolearen azken lana *Lamastabastani* da, eta bertan haurtzaroko iturrietara itzultzen da.

▼ **Igandea, 20**

- **Erreka:** Donostiako bolero taldea.
- **Carlinhos Brown:** Brasilgo musikari nagusietako bat, Sepulturaren kolaboratzailea *Roots* diskoan, Timbalada perkusio taldeko kidea.
- **Doña Casilda parkeko pergolan. 20:30etan.** Itxura batean, jaialdiko emanaldi interesgarriena da Carlinhos Brownena. Disko bakar batekin —*Alfagamabetizado* (Virgin, 1996)— sekulako kritika onak jaso ditu, eta zuzenean ikusi dutenek ere gorai pamen hitzak baino ez dituzte. Batzuentzat, Brasilgo mende amaierako artistarik onena da. Brasilgo ekialdean kokaturiko Bahia zonalde txiroan jaioa, txikitatik musikak erakarri zuen —esaten da abizena aldatu zuela James Brown miretsiarena izateko, baina berak gezurtatu du—, eta berehala utzi zituen ikasketak.

80ko hamarkadaren hasieran entzun gabe zituena instrumentuak jotzen ikasi zuen, eta El Salvadorko zenbait taldetan aritu zen perkusio jole gisa. Geroago, Bahiako erritmo guztiak batzeko lan nekagarriari ekin zion, eta Acorde Verdes taldean sartu zen. 1988an eta 1989an Caetano Velosoren eta Djavan taldearen perkusio jolea izan zen. Velosorekin eman zituena lehen kontzertuetan lata bat eta zakarrontzi bat erabili zituen tresna gisa. Halaber, Bill Laswell eta Wayne Shorter jazz joleen diskoetan agertzen da itxura fisiko ikusgarria duen brasildarra. Musikaria ez ezik, abestigile aparta ere badela sarritan erakutsi du Brownek, egin dituen abesti gehienak beste artistentzat izan badira ere. Horrela, Brasilgo zerrendetan lehen postua lortu duten 26 abesti egin ditu. 1993an Sergio Mendeseke Grammy saria irabazi zuen munduko musikari es-



CARLINHOS BROWN

▼ **Ostirala, 18**

- **Sally Nyolo:** Parisen finkaturiko abeslari kamerundarra, Zap Mama emakume taldeko abeslari ohia.
- **Skank** Brasil azken errebelazioa, rock eta ska taldea.

● **Doña Casilda parkeko pergolan. 22:00etan.**

Hamalau urte itxaron behar izan du Sally Nyolo kamerundarrak, Parisen finkatu zenetik, lehen diskoa kalean izateko eta Afrikako ahotsik ederrenetakoaari dagokion onespina izateko. Aurretik, Afrikako eta Frantziako artista ugariarekin kolaboratu zuen (Toure Kunda, Jacques Higuelin...), eta zerbaitek grabatu zuen filme baterako. 1993an Womad festibalean parte hartzeko gonbita jaso zuen, eta 1994an lau abesti grabatu zituen Peter Gabrielen *Real World* zigilurako. Geroztik, funtsezko zeregina izan zuen Belgikako Zap Mama emakume taldearen arrakastan, *Les Mamas des Mamas* abesti sonatua idatzi baitzuen haientzat, eta ondoren munduko bira egin zuen *a capella* abesten duen taldearekin.

Iaz kaleratu zuen Nyolok bakarkako lehen diskoa, *Tribu*. «*Tribu* da lurra, norberaren jatorria, ondasuna. Nire sustrai musikala ere izan da». Pigmeoen eton hizkuntzaz abesten ditu kantu guztiak: «Betidanik hitz egin dudana hizkuntza da, eta nire amari esker ez dut galdu». Perkusioa eta ahotza dira diskoko protagonista bakarrak neurri handi batean. Zuzenean hiru abeslari eta dantzarik laguntzen dute, oso ikuskizun erritmikoa eta bisuala eginez.

Skank, berriz, Brasilen azken aldiaren gorakada nabarmena izan duten ska, rock eta reggae taldeetako bat da. Azken diskotik, *O samba poconé*, milioi eta erdi ale saldu dituzte, eta Sepulturaren ondoren Brasilgo talderik ezagunena bilakatu da. Mano Negra eta Fabulosos Cadillacs-en korrante berekoa da Skank —Manu Chao kolaboratu du *O samba poconé* diskoan, eta taldeak aitortu duenez, Mano Negraren *Casa Babylon* diskoak asko eragin du aipaturiko diskoan—. Skanki buruz hitz egitea Brasilgo topikoei buruz hitz egitea da: futbol zaletasuna, emakume lirainak, samba, beroa eta martxa.

▼ **Larunbata, 19**

- **Candido Fabre:** Los Van Van, Celia Cruz, Orquesta Aragon eta beste talde askok haren abestiak kantatu dituzte.
- **Manu Dibango** Afrikako musikaren instituzio bat, hango erritmoak Europara zabaltzen aitzindaria.
- **Doña Casilda parkeko pergolan. 22:00etan.** Candido Fabrek 1993an sortu zuen bere banda. Aurretik, hamar urtez, Orquesta Nacional de

Nafarroako Jaialdiak

Bilbao Tropikal jaialdia lehen urratsak ematen ari bada, Nafarroako Jaialdiak ongi sendotutako errealitatea dira. Urterik urte, abuztuan, munduko musikaren erakustaldi zabalaren prestatzen dute antolatzaileek. Aurten, Iruñean jaialdia zabalduko duen kontzertuan, Madagaskarreko Tarika taldea izango da, gaur egungo Afrika musikan nabarmentzen ari den talde berria. *Son Egal* diskoan historiari jotzen dute, frantziarren aurkako independentzia borroka latza gogoratuz, eta antzinako tradizioak berreskuratuz. Aurten Afrikako musikari eman duen diskorik interesgarrienetakoa da Tarikarena, eta luxu bat izango da zuzenean ikustea. Ohi denez, lau gunetan banatuko da egitaraua, bakoitza zonalde edo mota bateko musikari eskainia. Iruñean Musika Berrien zikloa izango da. Lau egun izango dira: lehenengoa, The Balanescu Quartet hari taldea ariko da; hurrengoan Javier Paxariño Sexteto taldea; hirugarren egunean, Suso Saiz musikari eta ekoizle ospetsua (Javier Alvarez, Joxan Goikoetxea...) bere taldearekin; eta zikloa ixteko, Portugalgo Madredeus talde bikainak fado-arekin liluratuko gaitu. Altsasun Afrikako musika bilduko da. Toure Kunda senegaldarrak, Sally Nyolo kamerundarrak eta Chab Samir marokoarrak beteko dituzte itxura batean oso interesgarriak izango diren hiru jardunaldiak. Zangotza Atlantikoko Musikaren gunea izango da. Beharbada proposamen ezezagunena da publiko zabalarentzat. Ariko diren taldeak Mestisay, Ala Dos Enamorados eta Euclides Mattos izango dira. Azkenik, Mediterraneoko musika bilduko da Lizarran. Bertan Enrique Morente eta Lagartija Nick batera ikusteko aukera izango da. Flamenko abeslaria eta rock taldea iaz bildu ziren Federico Garcia Lorcaren eta Leonard Cohenen testuetan eta musikan oinarrituriko diskoa lantzeko. Emaitzak, *Omega* izeneko lanak, bikain uztartzen ditu flamenkoa eta rocka, esku zartak eta distorsioa. Batzuek historikotzat jo dute diskoa.



E. MORENTE

IRUÑEA

- Abuztuak 3. Tarika (Madagaskar). Iruñeko Gaztelu plazan. 22:00etan.
- Musika Berrien zikloa. Gaiarre antzokian. 21:00etan.
- Abuztuak 18. The Balanescu Quartet.
- Abuztuak 19. Javier Paxariño Sexteto.
- Abuztuak 20. Suso Saiz Cuarteto.
- Abuztuak 21. Madredeus.

ALTSASU. Afrikako Musikaren zikloa. Zelandi zelaian. 22:00etan.

- Abuztuak 8. Toure Kunda (Senegal).
- Abuztuak 9. Sally Nyolo (Kamerun).
- Abuztuak 10. Chab Samir (Maroko).

ZANGOTZA. Atlantikoko Musikaren zikloa. Carmeneko klaus-troan. 22:00etan.

- Abuztuak 15. Mestisay.
- Abuztuak 16. Ala Dos Enamorados.
- Abuztuak 17. Euclides Mattos.

LIZARRA: Mediterraneoko Musikaren zikloa. Los Llanos pasealekuan. 22:00etan.

- Abuztuak 22. Los Gitanos de Rajasthan.
- Abuztuak 23. Enrique Morente & Lagartija Nick.
- Abuztuak 24. Radio Tarifa.

kainitako atalean: Mendesen diskoko hamabi abestietatik bost Brownek eginak ziren. Baina kolaboraziorik en-tzutetsuena iaz egin zuen Sepulturarekin, *Roots* disko arrakastatsuan. Bertako hiru abesti Brownek egin zituen. Horrez gain, 120 lagunek osaturiko Timbalada perkusio taldea martxan jarri du Brownek beste proiektuekin batera, eta iaz bakarkako lehen diskoa atera zuen. Perkusioa, rapa, funk-a, afrikar doinuak, Brasilgo melodiak, jaza eta *dance* musika batzen dira Brownen proposamenean. Zuzenean 17 musikarik laguntzen dute, eta bat-batekotasuna eta eraldia erritmikoa nagusitzen dira artistaren eta publikoaren arteko harremanaren ondorioz.

Aurretik, kontzertua xuabe-xuabe irekiz, Erreka taldea ariko da. Donostia inguruko zazpikoteak *Elena la cumbanchera* lana atera du aurten, erritmo latinoz beteriko hamabi abesti, *Guantamera* bezalako klasikoaren bertsioekin.

jon eskisabel